Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko otsailaren 20a, astelehena — 34 — Lunes, a 20 de febrero de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ARRASATEKO UDALA

### Diruzaintza

*Alkatearen erabakia*

Diruzaintzaren kudeaketak tresna egokiak izatea eskatzen du, alde batetik, obligazioak garaiz ordaintzeko behar besteko likidezia bermatzeko, eta, bestetik, finantza baliabideen erabilera optimizatzeko. Horretarako, Funtsak Erabiltzeko Plana udal diruzaintzaren plangintza tresna bat da, nahitaezkoa, eta bertan jasoko dira ordainketa aginduak ematean aplikatu beharreko irizpideak eta horiek egiteko lehentasun ordena.

Beraz, funtsezko tresna da obligazioak eta diruzaintzaren baliabideak planifikatzeko, eraginkortasunaren, efizientziaren eta finantza jasangarritasunaren printzipioak betetzen lagunduko baitu; izan ere, plan honek ahalbidetuko du apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa, jasotako aurrekontu egonkortasunaren eta finantza jasangarritasunaren printzipioak betetzea. Horrela, ekitaldi osoan, toki erakundeak gaitasuna izango du hartutako nahiz gerora sortutako gastu konpromisoak finantzatzeko, berankortasunari buruzko araudian hornitzaileei ordaintzeko aurreikusitako gehieneko epea eta aurrekontu oreka betez.

Ikusirik martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua, Estatuko gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena, 5.b.1) artikuluan, diruzaintzari eta zerga bilketari dagokiena: «1. Diruzaintza-eginkizunak honako hauek barne hartzen ditu:

a. Toki-erakundeari dagokion organoaren titulartasuna eta zuzendaritza.

b. Toki-erakundearen funtsak, balioak eta efektuak erabiltzea eta zaintzea, indarreko lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera, eta, bereziki:

1) Diruzaintzako plan, egutegi eta aurrekontuak eratzea, erakundeak bere betebeharrei behar bezala erantzuteko duen diru erabilgarria denboran zehar banatuz, legez ezarritako lehentasunak kontuan hartuta eta udalbatzak hartutako akordioen arabera; erabaki horietan hornitzaileei ordaintzeko aurreikuspenei buruzko informazioa jasoko da, berankortasunari buruzko araudiak ezarritako gehieneko epea betetzen dela bermatzeko.»

Ikusirik diruzaintzaren proposamenean oinarrituriko Barne Antolaketaren batzordearen diktamena, 2023ko urtarrilaren 25ekoa.

Ikusirik Funtsak Erabiltzeko Planari aplikagarria zaion araudia: Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa (187. artikulua), abenduaren 28ko 39/1988 Legea, Toki ogasunak arautzen dituena, apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretua, seigarren tituluko lehenengo kapitulua aurrekontuen arloan garatzen duena (65.2 artikulua), abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa (41.7 artikulua), 1978ko Espainiako Konstituzioa (135.3 artikulua), apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa (3,

## AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

### Tesorería Municipal

*Resolución de la alcaldesa*

La gestión de la tesorería exige contar con instrumentos adecuados que garanticen, por un lado, la liquidez necesaria para el pago puntual de las obligaciones y, por otro, la optimización de la utilización de los recursos financieros. Para ello, el Plan de Disposición de Fondos es un instrumento de planificación de la tesorería municipal, de carácter obligatorio, en el que se recogerán los criterios a aplicar en la emisión de las órdenes de pago y el orden de prelación en su realización.

Se trata, por tanto, de un instrumento fundamental en la planificación de las obligaciones y de los recursos de la tesorería, que contribuirá al cumplimiento de los principios de eficacia, eficiencia y sostenibilidad financiera, ya que este plan permitirá dar cumplimiento a los principios de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera recogidos en la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera. De este modo, durante todo el ejercicio, la Entidad Local podrá financiar los compromisos de gasto asumidos o generados con posterioridad, respetando el equilibrio presupuestario y el plazo máximo de pago a proveedores previsto en la normativa sobre morosidad.

Visto el artículo 5.b.1) del Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter estatal, con relación a la tesorería y recaudación: «1. La función de tesorería comprende:

a. La titularidad y dirección del órgano correspondiente de la Entidad Local.

b. El manejo y custodia de fondos, valores y efectos de la Entidad Local, de conformidad con lo establecido en las disposiciones legales vigentes y, en particular:

1) La formación de los planes, calendarios y presupuestos de Tesorería, distribuyendo en el tiempo las disponibilidades dinerarias de la Entidad para la puntual satisfacción de sus obligaciones, atendiendo a las prioridades legalmente establecidas, conforme a los acuerdos adoptados por la Corporación, que incluirán información relativa a la previsión de pago a proveedores de forma que se garantice el cumplimiento del plazo máximo que fija la normativa sobre morosidad.»

Visto el dictamen de la comisión de Organización Interna, basado en la propuesta de tesorería, de 25 de enero de 2023.

Vista la normativa aplicable al Plan de Disposición de Fondos: Texto Refundido de la Ley reguladora de las Haciendas Locales aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo (artículo 187), Ley 39/1988, de 28 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales, Real Decreto 500/1990, de 20 de abril, por el que se desarrolla el capítulo primero del título sexto en materia presupuestaria (artículo 65.2), Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa (artículo 41.7), Constitución Española de 1978 (artículo 135.3), Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera (artículos

EK\CV GAO-I-2023-00895

4, 13.6, 14 eta 18.5 artikuluak), azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorra, Aurrekontuei buruzkoa (107. artikulua), urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (71.2 eta 131. artikuluak), azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena (198.4 artikulua), apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretua, Tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena (21. artikulua), martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena (5.1.b) 1 eta 2.b) artikulua).

Ikusirik 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 187. artikuluak Alkateari eskumena aitortzen diola Funtsak Erabiltzeko Plana onartzeko.

Legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz, honen bidez

EBAZTEN DUT

1. Onartzea Arrasateko Udalaren Funtsak Erabiltzeko plana, I. eranskinean jasotakoa, toki erakunde honek bere gain hartutako betebeharrei aurre egiteko, Diruzaintza osatzen duten funtsen kudeaketari buruzko aurreikuspenei dagokienez.

2. Funtsak Erabiltzeko Plana onartzeko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 131. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Gauzak horrela, argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetu arte.

Horrez gain, abenduaren 9ko 19/2013 Legean, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa, aurreikusitakoa aplikatuz, Plana Arrasateko Udalaren webgunean argitaratzea.

3. Ebazpen honek, 39/2015 Legearen 112.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, ez du onartzen administrazio bidearen errekurtsorik. Horregatik, horren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, argitaratu eta bi hileko epean, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 8. eta 46.1 artikuluetan aurreikusitako moduan.

Arrasate, 2023ko otsailaren 3a.—Alkatea. (895)

ERANSKINA

ARRASATEKO UDALAREN FUNTSAK ERABILTZEKO PLANA

*1. Printzipio orokorrak.*

1.1. Funtsak Erabiltzeko Plana beharrezko tresna da diruzaintzaren kudeaketarako, eta, aldi berean, tresna eraginkorra da tokiko finantza-sistemaren likidezia arautzeko.

1.2. Toki-erakunde honen Diruzaintzako Funtsak Erabiltzeko Planaren helburua ordainketak denboran behar bezala banatzea da, Udal Diruzaintzan aurreikusitako eskudiru-baliabideetara egokituz, zorpetze-beharrak behar bezala zenbatetsi eta erabilgarri dauden baliabideak optimizatu ahal izateko.

1.3. Udaleko kontu-hartzailetzak egiaztatuko du ordainketa-aginduak bat datozela funtsak xedatzeko planarekin, funtsak xedatzeko plana bera edo erakundeko diruzaintzak horri buruz egindako txostena aztertuz.

Diruzaintza osatzen duten funtsen kudeaketa kutxa-batasunaren printzipioari jarraituz egingo da, aurrekontu-eragiketek eta aurrekontukoak ez diren eragiketek sortutako funts eta balore guztiak zentralizatuz, obligazioak ordaintzeko erabilgarri dauden diru-baliabide guztiak erabiliz.

3, 4, 13.6, 14 y 18.5), Ley 47/2003, de 26 de noviembre, General Presupuestaria (artículo 107), Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (artículos 71.2 y 131), Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (artículo 198.4), Real Decreto 424/2017, de 28 de abril, por el que se regula el régimen jurídico del control interno de las entidades del sector público local (artículo 21), Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de administración local con habilitación de carácter nacional (artículo 5.1.b) 1 y 2.b)).

Considerando que el artículo 187 del Real Decreto Legislativo 2/2004 atribuye al alcalde o alcaldesa la competencia para aprobar el Plan de Disposición de Fondos.

En virtud de las atribuciones que legalmente me han sido conferidas, por la presente

RESUELVO

1. Aprobación del Plan de Disposición de Fondos del Ayuntamiento de Arrasate, recogido en el anexo I, para hacer frente a las obligaciones asumidas por esta entidad local en relación con las previsiones relativas a la gestión de los fondos que integran la Tesorería.

2. Publicación del anuncio de aprobación del Plan de Disposición de Fondos en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 131 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Por consiguiente, entrará en vigor al día siguiente de su publicación y mantendrá su vigencia hasta su modificación o derogación.

Asimismo, en aplicación de lo previsto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, publicación del Plan en la página web del Ayuntamiento de Arrasate.

3. Esta resolución, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 112.3 de la Ley 39/2015, no admite recurso en vía administrativa. Por ello, contra la misma podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián en el plazo de dos meses a contar desde su publicación, en los términos previstos en los artículos 8 y 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Mondragón, a 3 de febrero de 2023.—La alcaldesa. (895)

ANEXO

PLAN DE DISPOSICIÓN DE FONDOS DEL AYUNTAMIENTO DE ARRASATE

*1. Principios generales.*

1.1. El Plan de Disposición de Fondos es un instrumento necesario para la gestión de la tesorería, y, al mismo tiempo, es un instrumento eficaz para regular la liquidez del sistema financiero local.

1.2. El Plan de Disposición de los Fondos de Tesorería de esta entidad local tiene por objeto la adecuada distribución en el tiempo de los pagos, ajustándose a los recursos de efectivo previstos en la Tesorería Municipal, con el fin de poder cuantificar adecuadamente las necesidades de endeudamiento y optimizar los recursos disponibles.

1.3. Intervención municipal comprobará que las órdenes de pago se ajustan al plan de disposición de fondos, analizando el propio plan de disposición de fondos o el informe elaborado al respecto por la tesorería de la entidad.

La gestión de los fondos integrantes de la Tesorería se realizará de acuerdo con el principio de unidad de caja, centralizando la totalidad de los fondos y valores generados por las operaciones presupuestarias y no presupuestarias, utilizando todos los recursos económicos disponibles para el pago de las obligaciones.

EK\CV GAO-I-2023-00895

1.4. Funtsak Erabiltzeko Plana izaera ekonomikoko administrazio-dokumentua da; bai hura onartzean, bai betearaztean, Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren 7 eta hurrengo artikuluetan, apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuaren 7 eta hurrengo artikuluetan eta Tokiko Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 213 eta hurrengo artikuluetan zehaztutakoari men eginez.

1.5. Funtsak Erabiltzeko Plana Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 131. artikuluan xedatutako ondorioetarako eta indarrean jarraituko du geroagoko arau- edo legemaila bereko edo handiagoko arau batek aldatu, baliogabetu edo indargabetu arte.

1.6. Era berean, Funtsak Erabiltzeko Plana ekitaldian zehar berrikusi ahal izango da, baliabide likido efektiboetan edo Diruzaintzan aurreikusitako baliabideetan gertatutako aldaketen arabera.

*2. Ordainketak agintzeko prozedura.*

2.1. Gastuen aurrekontua gauzatzeagatiko aurrekontu-ordainketak dagokion obligazioaren onespenaren arabera ordenatuko dira (behin gastu espedientea osatuta dagoela), horien beharrezko aurrekontu-betearazpena dela eta, dagozkien sortzapenaren arabera.

2.2. Diruzaintzak ordainketak aurreikusitako epemuga-datetan ordaindu ahal izateko, ordainketa mandamenduak garaiz egon beharko dira Diruzaintzan, horrek justifikatutako edozein arrazoirengatik edo atxikipen- edo enbargo-aginduagatik ez direla atxikitu behar egiaztatu ondoren ordaindu ditzan.

2.3. Ordainketa-aginduak bi faktorek baldintzatuko dituzte beti: batetik, diruzaintzaren likidezia-eskuragarritasuna, eta, bestetik, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren ordainketa-epeak edo datak. Hau da, oro har, ordainketak aginduko dira berankortasunari eta sektore publikoko kontratuei, tributuei, aurrekontuei, eta desjabetzeari buruzko araudiak edo aplikagarri diren bestelako araudiek kasuan-kasuan ezartzen dituzten epeak betez, ordainketak betearaztea agintzen duten ebazpen judizialetan aurreikusitakoaren arabera, edota kasuan kasuko kontratuetan edo tresna erregulatzaileetan araututakoaren arabera.

2.4. Plan honen arabera ordainketari dagokion lehentasun-ordena edozein dela ere, ordainketak berankortasun-araudian aurreikusitako epea amaitu aurretik egitea aginduko da.

Likidezia-tentsiorik gerta ez dadin, komenigarria litzateke gastua kudeatzen duten zentroek Diruzaintzaren esku jartzea gastuak gauzatzeko aurreikuspenen egutegiari buruzko informazioa, diruzaintza egutegi horretara egokitze aldera.

*3. Diru-erabilgarritasuna eta ordainketen lehentasun-ordena.*

3.1. Toki-erakunde honen diru-baliabideen programaziotik ondorioztatzen bada ez dela aukerarik egongo zorraren amortizazioa eta dagozkion interesak garaiz ordaintzeko, langileen obligazioak ordaintzeko edo/eta Gizarte Segurantzaren nahitaezko kuotak ordaintzeko, ordainketen programazioan doikuntzak egin ahal izango dira, obligazioei aurre egiteko behar diren diru-baliabideak lortu arte.

3.2. Ordainketa-aginduak emateko programazioan zentzuz estimatutako funtsen erabilgarritasunak aurrekontu-izaerako aitortutako obligazioei eta aurrekontuz kanpoko izaera duten ordainketei erantzuteko aukerarik ematen ez duenean, ordainketa-aginduen lehentasun-hurrenkera ondorengoa izango da:

1.4. El Plan de Disposición de Fondos es un documento administrativo de naturaleza económica, tanto a la hora de su aprobación como de su ejecución, de conformidad con lo establecido en los artículos 7 y siguientes del Decreto Foral 32/2018, de 27 de diciembre, por el que se regula el régimen jurídico del control interno de las entidades del Sector Público Local de Gipuzkoa, en los artículos 7 y siguientes del Real Decreto 424/2017, de 28 de abril, y en los artículos 213 y siguientes del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales.

1.5. El Plan de Disposición de Fondos entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a los efectos previstos en el artículo 131 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y mantendrá su vigencia hasta que sea modificada, anulada o derogada por norma de igual o superior rango normativo o legal.

1.6. Asimismo, el Plan de Disposición de Fondos podrá ser revisado a lo largo del ejercicio, en función de las variaciones que se produzcan en los recursos líquidos efectivos o en los previstos en la Tesorería.

*2. Procedimiento de ordenación de pagos.*

2.1. Los pagos presupuestarios por la ejecución del presupuesto de gastos se ordenarán en función de la aprobación de la correspondiente obligación (una vez completado el expediente de gastos), debido a la necesaria ejecución presupuestaria de los mismos, en función del devengo que les corresponda.

2.2. Para que la Tesorería pueda efectuar el pago de los pagos en las fechas de vencimiento previstas, los mandamientos de pago deberán estar a tiempo en la Tesorería, para su ingreso previa comprobación de que por cualquier causa justificada por ésta u orden de retención o embargo no deben ser retenidos.

2.3. Las órdenes de pago estarán siempre condicionadas por dos factores: por un lado, la disponibilidad de liquidez de la tesorería y, por otro, los plazos o fechas de pago aplicables en cada caso. Esto es, con carácter general, los pagos se ordenarán con sujeción a los plazos que en cada caso establezca la normativa de morosidad y contratos del sector público, tributaria, presupuestaria y expropiatoria u otra normativa aplicable, de acuerdo con lo previsto en las resoluciones judiciales que ordenen la ejecución de los pagos o con lo regulado en los correspondientes contratos o instrumentos reguladores.

2.4. Con independencia del orden de prelación correspondiente al pago según el presente plan, se ordenará realizar los pagos antes de la finalización del plazo previsto en la normativa de morosidad.

Para evitar que se produzcan tensiones de liquidez, sería conveniente que los centros gestores del gasto pusieran a disposición de la Tesorería la información relativa al calendario de previsiones de ejecución de los gastos para que tesorería se adecue a dicho calendario.

*3. Disponibilidad económica y orden de prelación de pagos.*

3.1. En el supuesto de que de la programación de los recursos económicos de esta Entidad Local se deduzca la imposibilidad de hacer efectiva en tiempo la amortización de la deuda y los correspondientes intereses, el pago de las obligaciones de personal y/o el pago de las cuotas obligatorias de la Seguridad Social, se podrán realizar ajustes en la programación de los pagos hasta que se obtengan los recursos económicos necesarios para hacer frente a las obligaciones.

3.2. Cuando la disponibilidad de fondos razonablemente estimados en la programación para la emisión de órdenes de pago no permita atender a las obligaciones reconocidas de carácter presupuestario ni permitar atender a los pagos de carácter extra-presupuestario, el orden de prioridad de las órdenes de pago será el siguiente:

EK\CV GAO-I-2023-00895

* 1. maila: Zorraren amortizazioari dagozkion ordainketak.

Tokiko Erakundearen zorpetze garbiaren murrizketa Espainiako Konstituzioaren 135. artikuluak ezarritako agindua da, zorra beste edozeinen aurretik ordaintzeari lehentasuna ematen diona. Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 14. artikuluak bezala, zorra ordaintzeko erabateko lehentasuna ezartzen du.

1. Aurreko ekitaldietan hartutako obligazioei dagozkien ordainketak: IX. kapituluan jasotako zorraren amortizazioa eta III. kapituluan jasotako zorraren interesak.

2. Halaber, IX. kapituluan jasotako zorraren amortizazioari eta III. kapituluan jasotako zorraren interesei dagozkien ordainketak, aurrekontuzkoak ez diren diruzaintzako eragiketak kitatzeagatiko ordainketak eta zorretik eta diruzaintzako eragiketetatik eratorritako finantza-gastuak.

Edonola ere, lehentasuna izango dute finantza-zorretik eratorritako zorraren amortizazioari dagozkien obligazioek. Jarraian, zorrari zuzenean lotutako interes eta gastu finantzarioak ordainduko dira, eta, azkenik, finantza-zorra kudeatzeko eta ordaintzeko gainerako gastuak edo kostuak.

Zorraren amortizazioari dagozkion ordainketa gisa ulertuko dira epe laburrerako edo luzerako kreditu-eragiketen amortizaziokuotak eta interesak, eta formalizaziotik, azterketatik, ezereztetik eta, oro har, orotariko komisioetatik eratorritako gastuak mota honetako eragiketengatik.

* 2. maila: I. kapituluko (Langile-gastuak) kredituei dagozkien ordainketak.

Lehentasun maila hau Gipuzkoako Lurralde Historikoko tokierakundeen aurrekontuei buruko abenduaren 19ko 21/2003 Foru arauaren 41.7 artikuluak zehazten du: «7.- Ordainketa aginduak diruzaintzaren fondoak erabiltzeko planaren arabera emango dira; plan hori udalburuak ezarri behar du eta bertan langileen gastuen eta aurreko ekitaldietan hartutako betebeharren lehentasuna bildu behar dira».

Maila honetan sartzen dira gastuen aurrekontuaren sailkapen ekonomikoaren I. kapituluan (Langile-gastuak) sailkatutako gastuak. Adibide gisa, funtzionarioen, langile lan-kontratudunen, aldi baterako funtzionarioen eta Udalbatzako kide hautetsien ordainsari likidoak ere sartzen dira, baldin eta beren ordezkaritza-lanetan jardun esklusiboa aitortuta badute, bai eta gainerako gastuak ere, hala nola gastu sozialak eta zerbitzuagatiko kalte-ordainak.

Ez dira lehentasun maila honetan sartuko aurrez aipatutako langileei dagozkien dietak edo langileen eskura jarritako formakuntza-planak.

Aurrekoez gain, edozein erregimenetan Gizarte Segurantzari egindako kotizazioengatik langileei atxikitako kuotengatik egin beharreko aurrekontuz kanpoko ordainketak ere sartuko dira, bai eta Korporazioak ordaindutako errenten hartzaileei atxikitako zergengatik eta, bereziki, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagozkienengatik hiru hilean behin egindako likidazioetatik eratorritakoak ere, salbu eta, bi kasuetan, ordaintzeko betebeharra geroratzea edo zatikatzea lortu bada. Aurrekontu-izaerako Gizarte Segurantzako edozein erregimenetako enpresa-kotizazioengatiko ordainketak ere sartuko dira, salbu eta ordainketa-betebeharraren gerorapena edo zatikapena lortu bada.

Hori horrela, lehentasun ordena ondorengoa izango da:

1. Funtzionarioen, lan-kontratuko langileen, behin-behineko langileen eta korporazioko kide hautetsien ordainsari likidoak.

2. Zerbitzuagatiko kalte-ordainak.

* Nivel 1: Los pagos correspondientes a la amortización de la deuda.

La reducción del endeudamiento neto de la Entidad Local es un mandato establecido por el artículo 135 de la Constitución Española que da prioridad al pago de la deuda por delante de cualquier otro. Al igual que el artículo 14 de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, establece la prioridad absoluta en el pago de la deuda.

1. Los pagos correspondientes a obligaciones contraídas en ejercicios anteriores: La amortización de la deuda contemplada en el capítulo IX y los intereses de la deuda contemplada en el capítulo III.

2. Asimismo, los pagos correspondientes a la amortización de la deuda contemplada en el capítulo IX y a los intereses de la deuda contemplados en el capítulo III, los pagos por liquidación de operaciones de tesorería no presupuestarias y los gastos financieros derivados de la deuda y de las operaciones de tesorería.

En todo caso, tendrán preferencia las obligaciones correspondientes a la amortización de la deuda derivada de la deuda financiera. A continuación, se pagarán los intereses y gastos financieros directamente relacionados con la deuda y, por último, los demás gastos o costes de gestión y pago de la deuda financiera.

Tendrán la consideración de pagos correspondientes a la amortización de la deuda las cuotas de amortización e intereses de las operaciones de crédito a corto o largo plazo y los gastos derivados de su formalización, análisis, cancelación y, en general, de las comisiones de todo tipo por este tipo de operaciones.

* Nivel 2: Pagos correspondientes a los créditos del capítulo I (gastos de personal).

Este nivel de prioridad viene determinado por el art. 41.7 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. «7.- La expedición de órdenes de pago habrá de acomodarse al Plan de disposición de fondos de Tesorería que se establezca por el/la presidente/a que, en todo caso, deberá recoger la prioridad de los gastos de personal y de las obligaciones contraídas en ejercicios anteriores».

En esta categoría se incluyen los gastos clasificados en el capítulo I (Gastos de personal) de la clasificación económica del presupuesto de gastos. A modo de ejemplo, también se incluyen las retribuciones líquidas de los funcionarios, personal laboral, funcionarios temporales y miembros electos de la Corporación que tengan reconocido el ejercicio exclusivo de su representación, así como el resto de gastos, tales como gastos sociales e indemnizaciones por razón de servicio.

No se incluirán en este nivel de preferencia las dietas correspondientes al personal anteriormente mencionado o los planes de formación puestos a disposición del personal.

Además de lo anterior, también se incluirán los pagos extrapresupuestarios a realizar por cuotas retenidas a los trabajadores por cotizaciones realizadas a la Seguridad Social en cualquier régimen, así como las derivadas de las liquidaciones trimestrales por tributos afectos a los perceptores de rentas satisfechas por la Corporación y, en particular, por las que corresponden al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, salvo que, en ambos casos, se hubiera obtenido aplazamiento o fraccionamiento de la obligación de pago. También se incluirán los pagos por cotizaciones empresariales de cualquier régimen de la Seguridad Social de carácter presupuestario, salvo que se haya obtenido aplazamiento o fraccionamiento de la obligación de pago.

Así, el orden de preferencia será el siguiente:

1. Las retribuciones líquidas de los funcionarios, del personal laboral, del personal eventual y de los miembros electos de la Corporación.

2. Indemnizaciones por razón de servicio.

EK\CV GAO-I-2023-00895

3. Aurrekontuz kanpoko ordainketak: nominan enplegatuei atxikitutako kuotak Gizarte Segurantzari edozein erregimenetan egindako kotizazioengatik, korporazioak ordaindutako errenten hartzaileei atxikitako zergen ondoriozko likidazioetatik eratorritakoak (bereziki, PFEZ), atxikipen eta enbargo judizial edo administratiboak eta legez ezarritako beste edozein atxikipen.

4. Gizarte Segurantzako edozein araubidetako enpresa-kotizazioen eta aurreikuspen-mutualitateen (funtzionarioen mutualitateak) kontzeptuan egindako aurrekontu izaerako ordainketak.

5. Aurrekontu-sailkapenaren arabera pertsonal-gastutzat jotzen diren gainerako gastuak, edo ebazpen judizial edo administratibo bidez horrela kalifikatzen direnak.

* 3. maila: Aurreko ekitaldietan hartutako obligazioak.

Aurreko mailan azaldutakoari jarraiki, abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 41.7 artikuluak aurreko ekitaldietan hartutako obligazioen ordainketei lehentasuna ematen die: «7.- Ordainketa aginduak diruzaintzaren fondoak erabiltzeko planaren arabera emango dira; plan hori udalburuak ezarri behar du eta bertan langileen gastuen eta aurreko ekitaldietan hartutako betebeharren lehentasuna bildu behar dira».

Hori horrela, maila honetan sartuko dira aurreko ekitaldietan hartutako obligazioen ordainketak, aurrekontukoak zein aurrekontuz kanpokoak, aplikagarria den araudiaren arabera sor daitezkeen interesak barne hartu gabe. Beraz, lehentasun-hurrenkera ondorengoa izango da:

1. Bere garaian behar bezala hartu ziren eta aurrekontuari egotzi ziren obligazioak.

2. Aurreko ekitaldietan sortu edota likidatu arren, dagokion ekitaldian izapidetu ez ziren obligazioak.

* 4. maila: Beste hainbat eratako ordainketak.

Maila honetan jasotako ordainketa-betebeharrak Udalak emandako lehentasunaren ondorioak dira, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4. artikuluan –Espainiako Konstituzioaren 140. eta 142. artikuluekin lotuta– onartutako erregelamendu- eta auto antolaketa- ahalmenaren arabera.

Maila honetan sartzen diren ordainketen artean ondorengoak aurki ditzakegu, jarraian ezarritako lehentasun-hurrenkerarekin:

1. Ebazpen judizialetatik sortutako betebeharrak. Kontzeptu honetan sartzen dira ebazpen judizialen ondorioz –zeintzuen bidez Udala zenbateko zehatz bat ordaintzera kondenatzen den– egin beharreko ordainketak edota gordailuak; bai eta ebazpen judizial irmo baten ondoriozko beste edozein ordainketa-betebehar ere.

2. Ordaintzeko bataz besteko epea kalkulatzerako orduan kontuan hartu ez arren, lehentasun maila bera izango dute gizarte larrialdiko laguntzek.

3. Dirulaguntza finalistekin finantzatutako gastuei dagozkien ordainketak, baldin eta gastu horiek kobratzeko ezinbestekoa bada aipatutako gastuak ordaindu direla justifikatzea; hau da, gastu horiek justifikatzeko helburu hutsarekin. Lehentasun hori Ordainketen Ordenatzaileak baimendu beharko du, gastua kudeatzen duen zentroak neurriaren beharrizanari eta horrek eragindako gastuei buruzko eskaera arrazoitua egin ondoren.

4. Zerga-ordainketak eta zuzenbide publikoko beste zor batzuk. Zerga-kontzeptuengatik egindako itzulketak eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarreren itzulketak, 2. mailan adierazitakoez bestelakoak direnak, beren arauetan ezartzen diren ordainketa epeen barruan egingo dira.

5. Aseguru primetatik eratorritako ordainketak, baldin eta haien ordainketa beharrezkoa bada ezbeharraren estaldura falta saihesteko.

3. Pagos extrapresupuestarios: cuotas retenidas a los empleados en nómina por cotizaciones a la Seguridad Social en cualquier régimen, las derivadas de las liquidaciones por impuestos retenidos a los perceptores de rentas satisfechas por la Corporación (en especial el IRPF), retenciones y embargos judiciales o administrativos y cualquier otra retención legalmente establecida.

4. Pagos de carácter presupuestario realizados en concepto de cotizaciones empresariales y mutualidades de previsión (de funcionarios) de cualquier régimen de la Seguridad Social.

5. Los demás gastos que, de acuerdo con la clasificación presupuestaria, tengan la consideración de gastos de personal o sean calificados como tales por resolución judicial o administrativa.

* Nivel 3: Obligaciones adquiridas en ejercicios anteriores.

De acuerdo con lo expuesto en el nivel anterior, el artículo 41.7 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, da prioridad a los pagos de las obligaciones contraídas en ejercicios anteriores: 7.- La expedición de órdenes de pago habrá de acomodarse al Plan de disposición de fondos de Tesorería que se establezca por el/la presidente/a que, en todo caso, deberá recoger la prioridad de los gastos de personal y de las obligaciones contraídas en ejercicios anteriores».

Así, se incluirán en este nivel los pagos de las obligaciones contraídas en ejercicios anteriores, tanto presupuestarios como extrapresupuestarios, sin incluir los intereses que puedan devengarse de acuerdo con la normativa aplicable. Por tanto, el orden de prioridad será el siguiente:

1. Las obligaciones debidamente contraídas en su día e imputadas al presupuesto.

2. Las obligaciones que, aunque devengadas y/o liquidadas en ejercicios anteriores, no se tramitaron en el ejercicio correspondiente.

* Nivel 4: Otros tipos de pago.

Las obligaciones de pago recogidas en este nivel son consecuencia de la preferencia otorgada por el Ayuntamiento, en virtud de la potestad reglamentaria y de auto de ordenación reconocida en el artículo 4 de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases del Régimen Local, en relación con los artículos 140 y 142 de la Constitución Española.

Entre los pagos incluidos en este nivel podemos encontrar los siguientes, con el orden de prelación establecido a continuación:

1. Obligaciones derivadas de resoluciones judiciales. Se incluyen en este concepto los pagos y/o depósitos que deban realizarse como consecuencia de resoluciones judiciales por las que el Ayuntamiento sea condenado al pago de una cantidad determinada, así como cualquier otra obligación de pago derivada de una resolución judicial firme.

2. Las ayudas de emergencia social tendrán el mismo nivel de prioridad, aunque no se tengan en cuenta a la hora de calcular el plazo medio de pago.

3. Los pagos correspondientes a los gastos financiados con subvenciones finalistas para cuyo cobro sea imprescindible justificar su abono, esto es, con la exclusiva finalidad de justificarlos. Esta prioridad deberá ser autorizada por el Ordenador de Pagos, previa petición razonada del centro gestor del gasto sobre la necesidad de la medida y sobre los gastos derivados de la misma.

4. Pagos de impuestos y otras deudas de derecho público. Las devoluciones por conceptos tributarios y de otros ingresos de derecho público distintos de los señalados en el nivel 2, se efectuarán dentro de los plazos de pago que se establezcan en sus normas reguladoras.

5. Los pagos derivados de primas de seguros cuando su pago sea necesario para evitar la falta de cobertura del siniestro.

EK\CV GAO-I-2023-00895

6. Bidegabe edo oker egindako diru-sarreren itzulketak. Haien barruan lehenetsiko dira diru-sarrera bikoiztuak edo akats baten ondorioz diru-sarrera gehiegizkoak izateagatik egin beharreko itzulketak, eta, ondoren, ebazpen administratibo edo judizial batek hala deklaratzeagatik bidegabeak direnak.

7. Aurreko betebehar batengatik sortutako eta likidatutako berandutze-interesak salbu eta legezko xedapen edo ebazpen judizial edo administratiboaren bidez betebeharraren zenbateko nagusiarekin batera ordaindu beharrekoak direnean.

8. Aurreko ataletan sartuta ez dauden diru-laguntzetatik eratorritako ordainketak (finalistak ez direnak).

9. Udal Diruzaintzan dauden fidantzak edo bestelako eskudirutako bermeak itzultzea, hala egitea bidezkoa denean.

10. Kutxa finkoko aurrerakinak. Udalak eratutako kutxa finkoko aurrerakinak eratzeko edo birjartzeko funtsak hornitzea.

11. Justifikatu behar diren ordainketak. Justifikatu beharreko izaeraz egindako ordainketa-aginduak, aukera hori aurreikusia duten betebehar espezifikoei erantzuteko.

* 5. maila: Zorraren antzinatasunaren araberako ordainketak.

Funtsak Erabiltzeko Plan hau berankortasunaren araudiak hornitzaileei ordaintzeko ezartzen dituen epeak betetzeko premisaren gainean egin da.

Aurreko ekitaldietan hartutako obligazioen ordainketak, aurrekontuzkoak zein aurrekontuzkoak ez direnak, berankortasunaraudian xedatutakoaren arabera sortutzat jo litezkeen interesak sartu gabe. Era berean, maila honetan sartzen da aurreko ekitaldietan hartu behar izan ziren obligazioen ordainketa, baldin eta ekitaldi honetan hartu badira kredituen judizioz kanpoko onespenagatik, toki-erakundearen osoko bilkuraren nahitaezko erabakiaren bidez, apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren 60.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Indarrean dagoen ekitaldiko obligazioen ordainketak, 39/2015 Legearen 71.2 artikulua aplikatuz, hau da, espedienteak hasieraordenaren arabera bideratuz, salbu eta aurkako ebazpen arrazoitua egoten bada.

Beraz, espedientea hasteko hurrenkera O fasea sortzea izango litzateke, hori baita betebehar ekonomikoaren benetako sorrera. Dena den, eta kontuan hartuta praktikan atzerapenak gertatzen direla fakturak onartzeko izapideetan, batzuetan kudeaketa-organoei egozteko modukoak, eta interesen eta erantzukizunen ordainketak saihesteko, ordainketa hogeita hamar eguneko epean lehenetsi beharko litzateke beti, betebeharra onartzen denetik, berankortasun-araudia betez.

*4. Berariazko aplikazio-arauak.*

4.1. Ordainketen lehentasun-printzipioa ez urratzeko, banku-transferentzia bidezko ordainketa arrunta ezartzen da ordainketa-prozedura orokor gisa, dagokion faktura tokiko erakundean aurkeztu ondoren. Justifikatu beharreko ordainketa, aldiz, salbuespenezko prozedura da, eta aldez aurretik arrazoitu eta justifikatu beharko da, Arrasateko Udalaren Aurrekontua gauzatzeko arauan zehaztutakoaren arabera.

Zentro kudeatzaile bakoitzeko, sailak 3 hilabeteren buruan egin beharreko gastuak berrikusi beharko dira aldizka, ezusteko gastuak saihesteko; izan ere, gastu horiek eragina izan dezakete ordainketen lehentasunean eta aurreikusitako diruzaintzako xedapenetan.

4.2. Salbuespen gisa, ordainketen lehentasun-hurrenkera aldatu ahal izango da, betiere ebazpen arrazoituaren bidez eta Ordainketa Agintzaileak sinatuta, baldin eta lehentasun-ordena zorrotz betetzeak udal-prestazioaren oinarrizko zerbitzuak geldiaraztea badakar, edo kontratuaren baldintzek zerbitzua eman aurretik ordaintzea eskatzen badute.

4.3. Diruzaintzak ordainketak atxiki eta konpentsatu ahal izango ditu toki-erakundearen aldeko tributu-zorrekin edo beste-

6. Devoluciones de los ingresos indebidos o equivocados. Dentro de estas se priorizarán las devoluciones por ingresos duplicados o por ingresos excesivos por error y, posteriormente, las que resulten indebidas por resolución administrativa o judicial.

7. Los intereses de demora devengados y liquidados por una obligación anterior, salvo que por disposición legal o resolución judicial o administrativa deban abonarse conjuntamente con el importe principal de la obligación.

8. Los pagos derivados de subvenciones no incluidas en los apartados anteriores que no tengan el carácter de finalistas.

9. Devolución de las fianzas u otras garantías en efectivo existentes en la Tesorería Municipal, cuando proceda.

10. Anticipos de caja fija. La provisión de fondos para la constitución o reposición de anticipos de caja fija constituidos por el Ayuntamiento.

11. Pagos a justificar. Órdenes de pago efectuadas con carácter justificativo para atender obligaciones específicas para las que se prevea tal posibilidad.

* Nivel 5: Pagos por antigüedad de la deuda.

Este Plan de Disposición de Fondos se ha elaborado sobre la premisa del cumplimiento de los plazos de pago a proveedores establecidos por la normativa de morosidad.

Los pagos, tanto presupuestarios como no presupuestarios, de las obligaciones contraídas en ejercicios anteriores, sin inclusión de los intereses que pudieran entenderse devengados conforme a lo dispuesto en la normativa de morosidad. Asimismo, se incluye en este nivel el pago de las obligaciones contraídas en ejercicios anteriores por aprobación extrajudicial de créditos en el presente ejercicio, mediante acuerdo preceptivo del Pleno de la Entidad Local, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 60.2 del Real Decreto 500/1990, de 20 de abril.

El pago de las obligaciones del ejercicio en curso, en aplicación del artículo 71.2 de la Ley 39/2015, es decir, tramitando los expedientes por orden de iniciación, salvo resolución motivada desfavorable.

Por lo tanto, el orden de inicio del expediente sería la creación de la fase O, que es el origen real de la obligación económica. No obstante, y teniendo en cuenta que en la práctica se producen retrasos en las tramitaciones de aprobación de las facturas, en ocasiones imputables a los órganos gestores, y con el fin de evitar los pagos de intereses y responsabilidades, el pago debería priorizarse siempre en el plazo de treinta días desde el reconocimiento de la obligación, en cumplimiento de la normativa de morosidad.

*4. Normativa espec. aplicación.*

4.1. Para no vulnerar el principio de prioridad de los pagos, se establece como procedimiento general de pago el pago ordinario por transferencia bancaria, previa presentación de la correspondiente factura ante la entidad local. Por el contrario, el pago a justificar es un procedimiento excepcional que deberá motivarse y justificarse previamente, de acuerdo con lo establecido en la norma de ejecución presupuestaria del Ayuntamiento de Arrasate.

Por cada centro gestor, los gastos a realizar por el departamento en el plazo de 3 meses deberán ser revisados periódicamente para evitar gastos imprevistos, dado que dichos gastos pueden afectar a la prioridad de los pagos y a las disposiciones de tesorería previstas.

4.2. Excepcionalmente, podrá alterarse el orden de prelación de los pagos, mediante resolución motivada y firmada por el Ordenante de Pagos, cuando el estricto cumplimiento del orden de prelación implique la paralización de los servicios básicos de la prestación municipal o cuando las condiciones del contrato exijan su abono con anterioridad a la prestación del servicio.

4.3. La Tesorería podrá retener y compensar pagos con deudas tributarias u otras deudas a favor de la Entidad Local, de

lako zorrekin, tributuen eta zuzenbide publikoko beste baliabide batzuen bilketaren kudeaketari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, bai eta aurrekontu-kudeaketari dagokionez ere, plan honetako lehentasun-printzipioei lotu gabe.

4.4. Ordainketa Agintzaileak legezko xedapenengatik egin behar diren gastuak ordaintzeko agindu ahal izango du, baldin eta horiek ez egiteak legea urratzea edo administrazio-prozedura atzeratzea badakar, edo epeari lotutako espedienteak badira, hala nola aldizkari ofizialetako edo prentsako argitalpenak, notarioen ordainketak, erregistratzaileak, etab.

*5. Ordaintzeko epeak.*

5.1. Obra-ziurtagirien ondoriozko ordainketak edo obra-, zerbitzu- edo hornidura-kontratu bat osorik edo partzialki egin dela egiaztatzen duten dokumentuak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentaraua Espainiako ordenamendu juridikora transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 198.4 artikuluan ezarritako epeen barruan ordainduko dira, salbu eta ordainketa-data zehatzak ezartzen badira arau, epai edo hitzarmen aplikagarrien arabera, eta betetzen bada 635/2014 Errege Dekretuak, uztailaren 25ekoak, administrazio publikoen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea kalkulatzeko metodologia eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako finantzaketa-araubideetako baliabideak atxikitzeko baldintzak eta prozedura garatzen dituenak, hornitzaileei ordaintzeko ezarritako batez besteko epea.

5.2. Aurreko arau orokorretik salbuetsita daude honako betebehar hauek:

— Langileen nomina. Hilero ordainduko da, hileko azken ostiralean, oro har.

— Gizarte-aseguruen eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen kuotak haien arauetan ezarritako epemugetan ordainduko dira.

— Justifikatu beharreko ordainketak eratzeagatik edo birjartzeagatik funtsak birjartzea urteko lehen hilean ordainduko da, oro har, dagozkion ordainketa-aginduak Diruzaintzan jaso ondoren.

— Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontzeptuan eta legeak eskatutako beste atxikipen batzuen kontzeptuan egindako atxikipenen ordainketak Gipuzkoako Foru Ogasunak edo hura biltzeko eskumena duen erakundeak ezarritako epeetan ordainduko dira.

— 9. kapituluko zorraren amortizazioa, Diruzaintzako eragiketak eta eragiketa horietatik eratorritako interesengatiko finantza-gastuak dagozkien mugaegunetan ordainduko dira.

— Gastuen aurrekontuko IV. eta VII. kapituluetako transferentziak, dirulaguntzak eta gainerako gastuak ordaintzeko aginduak Udal Diruzaintzan jasotzen direnetik 30 eguneko epean ordainduko dira, gizarte-laguntzak izan ezik, horiek arau orokorrean ezarritako datetan ordainduko baitira.

5.3. Ordainketa-aginduek Diruzaintzan egon beharko dute, Plan honetan ezarritako datetan onuradunei ordainketak egiteko behar besteko denborarekin, aldez aurretik horiek zerga-betebeharren ordainketan egunean daudela egiaztatuta.

*6. Ordainketa materiala izapidetzeko prozedura.*

6.1. Diruzaintzari dagokio ordainketa-aginduak ordaintzeko prozesuari hasiera ematea, legezko xedapenetan ezarritakoaren eta Udalak onartutako Funtsak Erabiltzeko Planean aurreikusitakoaren arabera. Izapidearen hasierari Diruzaintzak ordainketa-agindu kolektiboen edo banakoen proposamena egin eta sinatzeari ekingo dio. Ondoren, proposamena igorri egingo da, fiskalizatzeko, eta Kontu-hartzailearen sinadura eramango du. Horrekin, ordainketa aginduen kontu-hartze formala gauzatuko da.

acuerdo con lo establecido en la normativa vigente sobre gestión recaudatoria de tributos y otros recursos de derecho público, así como en relación con la gestión presupuestaria, sin sujeción a los principios de prioridad establecidos en este Plan.

4.4. El Ordenante de Pagos podrá ordenar el pago de los gastos que se deban realizar por disposiciones legales cuya no realización suponga infracción de la ley o retraso en el procedimiento administrativo, o se trate de expedientes relativos al plazo, tales como publicaciones de boletines oficiales o de prensa, pagos notariales, registradores, etc.

*5. Plazos de pago.*

5.1. Los pagos derivados de las certificaciones de obra o los documentos que acrediten la realización total o parcial de un contrato de obra, servicio o suministro se abonarán dentro de los plazos establecidos en el artículo 198.4 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transpone al ordenamiento jurídico español la Directiva 2014/23/UE y 2014/24/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 26 de febrero de 2014, salvo que se establezcan fechas concretas de pago de acuerdo con las normas, sentencias o convenios que resulten de aplicación, y se cumpla con el plazo medio de pago establecido en el Real Decreto 635/2014, de 25 de julio, por el que se desarrolla la metodología de cálculo del periodo medio de pago a proveedores de las Administraciones Públicas y las condiciones y el procedimiento de retención de recursos de los regímenes de financiación previstos en la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera.

5.2. Se exceptúan de la norma general anterior las siguientes obligaciones:

— La nómina del personal. Se abonará mensualmente, el último viernes del mes, con carácter general.

— El pago de las cuotas de los seguros sociales y de las mutualidades de previsión social se realizará en los términos establecidos en sus respectivas normas reguladoras.

— La reposición de fondos por la constitución o reposición de los pagos a justificar se hará efectiva, con carácter general, dentro del primer mes del año, una vez recibidas en Tesorería las órdenes de pago correspondientes.

— Los pagos de las retenciones practicadas en concepto de Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y otras retenciones exigidas por la ley se realizarán dentro de los plazos establecidos por la Hacienda Foral de Gipuzkoa u organismo competente para su recaudación.

— La amortización de la deuda del capítulo 9, las operaciones de Tesorería y los gastos financieros por intereses derivados de dichas operaciones se abonarán a sus respectivos vencimientos.

— Las transferencias, subvenciones y órdenes de pago del resto de gastos de los capítulos IV y VII del presupuesto de gastos se abonarán en el plazo de 30 días desde su recepción en la Tesorería Municipal, excepto las ayudas sociales que se abonarán en las fechas establecidas en la norma general.

5.3. Las órdenes de pago deberán estar depositadas en la Tesorería con tiempo suficiente para efectuar los pagos a las personas beneficiarias en las fechas establecidas en el presente Plan, previa acreditación de que se encuentran al corriente en el pago de las obligaciones tributarias.

*6. Procedimiento de tramitación del pago material.*

6.1. Corresponde a la Tesorería iniciar el proceso de pago de las órdenes de pago, de acuerdo con lo establecido en las disposiciones legales y lo previsto en el Plan de Disposición de Fondos aprobado por el Ayuntamiento. Tesorería iniciará el trámite con la propuesta y firma de las órdenes de pago colectivas o individuales. Posteriormente, se remitirá la propuesta para su fiscalización, y llevará la firma del interventor. Con ello se llevará a cabo la intervención formal de las órdenes de pago.

EK\CV GAO-I-2023-00895

6.2. Ordainketen egikaritze materiala transferentzia-aginduen bidez egin behar da, Udalaren titulartasuneko banku-kontuetan baimendutakoek sinatuta: lehenik, udal diruzainak sinatuko du, bigarrenik, udal kontu-hartzaileak, eta, azkenik, alkateak. Edozein kasutan, kargu bakoitzaren ordezkoek sinatu ahal izango dute eragiketa. Behin sinadura zirkuitua amaituta, diruzaintzak igorriko dio agindua bankuei, indarrean dauden fitxategi normalizatuekin batera.

6.3. Ordainketen agintzaileak uste badu komenigarria edo beharrezkoa dela ordainketa-lehentasunak aldatzea, proposatu ahalko du ordainketa bat edo batzuk agintzea. Ordainketa hori ebazpen arrazoituaren bidez egingo da.

6.4. Ordainketa-aginduak fiskalizatzean uste bada ez direla lege-xedapenetan edo Funtsak Erabiltzeko Planean ezarritako irizpideak betetzen ari, Kontu-hartzailetzako organoari egokituko zaio erreparoa idatziz formulatzea, hala badagokio aurrez egindako diruzaintzako txostenean oinarriturik.

6.2. La ejecución material de los pagos debe realizarse mediante órdenes de transferencia firmadas por los autorizados en las cuentas bancarias de titularidad municipal: primero el tesorero municipal, segundo el interventor municipal y finalmente la alcaldesa. En todo caso, la operación podrá ser firmada por los suplentes de cada cargo. Una vez finalizado el circuito de firma, la tesorería remitirá la orden a los bancos junto con los ficheros normalizados en vigor.

6.3. Si el ordenante de pagos considera conveniente o necesario modificar las prioridades de pago, podrá proponer ordenar uno o varios pagos. Dicho pago se realizará mediante resolución motivada.

6.4. Cuando en la fiscalización de las órdenes de pago se considere que no se están cumpliendo los criterios establecidos en las disposiciones legales o en el Plan de Disposición de Fondos, corresponderá al órgano de Intervención formular el reparo por escrito, en su caso, en base al informe de tesorería previamente emitido.